



GUIÓN LITÚRGICO. EUKARISTIA
GIZALEGEZKO LANAREN ALDEKO EGUNA
JORNADA MUNDIAL POR EL TRABAJO DECENTE
(4 octubre 2020– Domingo de la Semana XXVII del Tiempo Ordinario)

(Eleizbarruti bakotxean aldatu, osatu... Parrokia alkarte edo talde bakotxak aukeratuko ditu Eukaristiarako kantuak)

(A modificar, completar... en cada diócesis. Cada comunidad parroquial o grupo elige los cantos para la Eucaristía según sus posibilidades)

SARRERAKO OHARRA

Ondo etorriak urtean zeharreko hogeta zazpigarren domekako Eukaristia honetara. Datorren eguaztenez, urriak 7, Eleizak Gizalegezko Lanaren aldeko Munduko Eguna ospatuko dau, horren inguruan jarduten daberen gainerako erakundeakaz batera.

Nabarmenak eta larriak dira, gaur egun be, pandemiaren ondorioak; asko dira hildako eta kutsatuak eta asko, lan barik geratu diranak edo lana galtzeko arriskuan dagozanak. Eta zoritxarreko beste birus baten eraso jasateko zorian gagoz, hain zuzen be, *“norberekoikeria hotza”*... Beraz, gizalegezko lanaren alde egin behar dogu, lana, egoera honetan, gizon eta emakumeen duintasunaren isla izan daiten. Makina bat lagunek galdu dau lana eta duintasunez bizi ahal izateko lanik aurkitu ezinik dabil, luzaro iraunez langabezian edo behin-behineko lanetan, abusuzko baldintzetan lan eginez... Lanak gizon eta emakumeen bizitzarako dauan garrantziaz jabetu behar dogu eta danontzako gizalegezko lanaren alde egin, honako hau ahaztu barik: lanak, ona izango bada, gizon eta emakumeen osoko garapenerako baliagarri izan behar daua.

MONICIÓN DE ENTRADA

Bienvenidos todos y todas a esta Eucaristía del vigésimo séptimo domingo del tiempo ordinario. El próximo miércoles 7 de octubre la Iglesia celebra, junto con las organizaciones de la sociedad civil, la Jornada Mundial del Trabajo Decente.

En este momento en el que hemos pagado y seguimos pagando un alto precio por la pandemia, tanto en vidas humanas como laboralmente, el riesgo es que nos golpee un virus todavía peor, el del *“egoísmo indiferente”*,... Ahora más que nunca hemos de defender el trabajo decente, para que en estas situaciones, el trabajo sea fiel reflejo de la sagrada dignidad de la persona. Vemos como crece el número de las personas que han perdido su empleo y no encuentran otro para poder vivir dignamente, enfrentándose a situaciones prolongadas de paro o de trabajo precario o incluso en condiciones abusivas, es esencial que, como Iglesia, tomemos conciencia de la importancia del trabajo para la vida de las personas y de la necesidad de defender el trabajo decente para todos y todas. Sin olvidar que para que el trabajo sea bueno, debe contribuir al desarrollo humano integral de las personas.



DAMU OTOITZA

- Ez garalako behar dan beste konprometitzen langabeziaren eta behin-behinekotasunaren aurka. **ERRUKI, JAUNA.**
- Norberekoikeriaz jokatu eta atzean geratzen diranak ahazten doguzalako. **KRISTO, ERRUKI.**
- Une gaxetan itxaropenari eusten ez deusagulako. **ERRUKI, JAUNA.**

ACTO PENITENCIAL

- Porque no nos comprometernos de forma constante y eficaz contra el desempleo y la precariedad, **SEÑOR, TEN PIEDAD.**
- Porque nuestro egoísmo nos hace olvidar a los y las que se quedan atrás, **KRISTO, TEN PIEDAD.**
- Porque nos cuesta mantener la esperanza en los tiempos difíciles, **SEÑOR, TEN PIEDAD**

EBANJELIOA ETA IRAKURGAIK - EVANGELIO Y LECTURAS

- **1. IRAKURGAIA: Isaias Profetaren liburutik Is 5, 1-7**

PRIMERA LECTURA: Lectura del Profeta Isaías 5, 1-7

OHARRA LEHENENGO IRAKURGAIARI

Maitasuna egintzetan ikusten da; Jainkoak herriaren alde egiten dauanaren isla da. Eta herriak maitasunez erantzun daiala itxaroten dau Jainkoak, bere seme eta alaba lez, ardurakidetasunez jokatu daigula, ahulenei lagunduz eta krezinoia zainduz.

MONICIÓN A LA PRIMERA LECTURA

Y el amor son obras, trabajos de Dios por su pueblo. Lo que Dios espera de su pueblo es que responda en el mismo plano y seamos corresponsables como hijos e hijas de Dios, con el acompañamiento de los más desfavorecidos y el cuidado de la creación.

- **ERANTZUN-SALMOA: Sal 79, 9 eta 12, 13-14. 15-16, 19-20**

R/. Jaunaren mahastia Israelgo etxea da.

SALMO RESPONSORIAL: Sal 79, 9 eta 12, 13-14. 15-16, 19-20

R/. La viña del Señor es la casa de Israel



- **2. IRAKURGAIA: San Paulo Apostoluak Filipinoarrei egindako gutunetik Flp 4, 6-9**

SEGUNDA LECTURA: Lectura de la Carta del Apóstol San Pablo a los Filipenses (4,6-9)

OHARRA BIGARREN IRAKURGAIARI

Indar barriak aurkitu daikiez hemen sinistedunek. Egia zoragarri bakarra dago: Jainkoa beti dagoala gure ondoan. Gizon eta emakume guztiengandik gertu dago egunero eta uneoro eta Berak badaki zer gertatzen ari dan.

MONICIÓN A LA SEGUNDA LECTURA

Las personas creyentes siempre pueden encontrar fuerza renovada aquí. La maravillosa verdad es que Dios está siempre con nosotros y nosotras. Él está cerca de todas las personas cada momento de cada día y Él sabe lo que está pasando.

- **EBANJELIOA: Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik Mt 21, 33-43**

EVANGELIO: Lectura del Santo evangelio según San Mateo (21,33-43)

JAINKOAREN HERRIAREN OTOTIZA

Zuregana gatoz, Aita, gure irrika, beharrizan, ilusino eta nahigabeak aurkeztera. Lagundu eiguzu fedean sendo irauten eta gure bizitzetan ondoan zaitugula sinisten.

- Eleiza eta eleiztarrok batasun eta konpromiso izan gaitezak bidegabekeriak ezabatzeko ahaleginean. **ESKATU DEIOGUN JAUNARI.**

**Bedeinkatu gaizuz, Jauna,
alkartasunaren doeaz.**

ORACIÓN UNIVERSAL

Nos dirigimos a Ti, Padre, presentándote nuestros anhelos, necesidades, ilusiones y penas, para que nos mantengas fuertes en la fe y en la seguridad de que acompañas nuestras vidas.

- Que la Iglesia seamos testimonio vivo de comunión y compromiso esperanzador en la transformación de las injusticias. **ROGEMOS AL SEÑOR**

**Bendícenos con el don de la
solidaridad, Señor.**



- Gizon eta emakume guztiek gizalegezko lana izateko dauan eskubidea autortu eta sustatu daigun eta lan hori osoko garapenerako eta familien mantenurako izan daiten. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

**Bedeinkatu gaizuz, Jauna,
alkartasunaren doeaz.**

- Herrietako agintari eta legegileek guztion ona bilatu eta lege zuzenak egin daiezan, lana eta giza duintasuna eragiteko. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

**Bedeinkatu gaizuz, Jauna,
alkartasunaren doeaz.**

- Munduak hobera egin daian geure baitatik atara eta danok bere hobekuntzan jardun daigun. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

**Bedeinkatu gaizuz, Jauna,
alkartasunaren doeaz.**

- Lurraren emonkortasunaren eta giza ahaleginaren alde; herri guztiek beharrezko guztia izan daien eta krezinoa zaindu daigun. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

**Bedeinkatu gaizuz, Jauna,
alkartasunaren doeaz.**

Jainko ahaltzu eta errukitsua, lagundu zuregan sinisten dabenei atsekabetik atara daitezcan eta fedean sendo iraun daien. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

- Que sea reconocido y fomentado el derecho de toda persona al trabajo digno y decente que sirva para su desarrollo humano integral y al sostenimiento de las familias. ROGEMOS AL SEÑOR

**Bendícenos con el don de la
solidaridad, Señor.**

- Que quienes gobiernan y legislan las naciones, busquen el bien común y promulguen leyes rectas y justas, que favorezcan el empleo y la dignidad humana. ROGEMOS AL SEÑOR

**Bendícenos con el don de la
solidaridad, Señor.**

- Que sintamos que el mundo no mejorará hasta que no salgamos de nosotros/as mismos/as y que seamos capaces de colaborar para conseguirlo. ROGEMOS AL SEÑOR

**Bendícenos con el don de la
solidaridad, Señor.**

- Por la fecundidad de la tierra y del esfuerzo humano: para que ningún pueblo carezca de lo necesario para subsistir y se vele por el cuidado de la creación, ROGEMOS AL SEÑOR

**Bendícenos con el don de la
solidaridad, Señor.**

Dios de poder y de misericordia tiende tu brazo a tus fieles para que vean tu ayuda en sus tribulaciones y sostenidos en la fe. Por Jesucristo nuestro Señor.



JAUNARTZE OSTERAKO OTOITZA

Ni ikustera etorri zara,
Aita lez eta Adiskide lez.
Jesus, ez naizu bakarrik itzi.
Geratu nigaz, Jauna!

Ilunpentan dagoan herrian
noragabe noa erromes.
Emon zure argi eta grazia.
Geratu nigaz, Jauna!

Une eder honetan,
Zeuri besarkatuta nago.
Iraun daidala batasun honetan!

Geratu nigaz, jauna!

Bidelagun izan zakidaz bizitzan.
Ezinbestekoa dot zure presentzia.
Zu barik ahuldu eta jausi egiten naz.
Geratu nigaz, jauna!

Gain behera doa arratsaldea.
Ibaiaren antzera noa
heriotzaren itsas sakonera.
Geratu nigaz, Jauna!

Nahigabeen eta pozean
emon arnasa bizi nazan artean,
zeure besoetan hil artean.
Geratu nigaz, Jauna!

ORACIÓN DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Has venido a visitarme,
como Padre y como Amigo.
Jesús, no me dejes solo.
¡Quédate, Señor, conmigo!

Por el mundo envuelto en sombras
voy errante peregrino.
Dame tu luz y tu gracia.
¡Quédate, Señor, conmigo!

En este precioso instante
abrazado estoy contigo.
Que esta unión nunca me falte.

¡Quédate, Señor, conmigo!

Acompáñame en la vida.
Tu presencia necesito.
Sin Ti desfallezco y caigo.
¡Quédate, Señor, conmigo!

Declinando está la tarde.
Voy corriendo como un río
al hondo mar de la muerte.
¡Quédate, Señor, conmigo!

En la pena y en el gozo
sé mi aliento mientras vivo,
hasta que muera en tus brazos.
¡Quédate, Señor, conmigo!

(Plegaria del Padre Pío para después de la comunión)